


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2010eko ABUZTUA

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2010eko abuztuan aurreko hilaren aldean

**Azken hamabi hilabeteetan (2010eko abuztua, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %0,8 gehitu dira.**

2010eko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,8 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2010



(\*) Gehikuntza abuztuko urte artekoa da  
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2010eko abuztuan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 jaitsi dira.

Abuztuan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beherantzako bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,5eko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,4koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,2 igo dira eta Obra Zibilekoenak %2,5.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean: Metalurgia (%14,8), Petrolio-fintzea (%12,6), Energia elektrikoa eta ura (%7,5) eta Material elektrikoa (%2,9) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2010eko abuztua 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Ez-metalezko mineralak (%-3,1), Metalezko artikulak (%-0,8) eta Zurgintza (%-0,3),

**ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2010EKO ABUZTUA**

| GOIBURUAK                  | INDIZEA<br>2005 = 100 Oinarria | GEHIKUNTZAREN %        |                                   |                           |
|----------------------------|--------------------------------|------------------------|-----------------------------------|---------------------------|
|                            |                                | Aurreko hilaren aldean | Aurreko urteko hil beraren aldean | Aurreko abenduaren aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>      | <b>117,2</b>                   | <b>-0,3</b>            | <b>0,8</b>                        | <b>0,9</b>                |
| ERAIKINAK                  | 116,8                          | -0,4                   | 0,5                               | 0,5                       |
| OBRA ZIBILA                | 118,6                          | -0,3                   | 2,2                               | 2,3                       |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>   | <b>116,2</b>                   | <b>-0,4</b>            | <b>0,7</b>                        | <b>0,8</b>                |
| ERAIKINAK                  | 115,8                          | -0,5                   | 0,2                               | 0,3                       |
| OBRA ZIBILA                | 117,7                          | -0,4                   | 2,5                               | 2,6                       |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b> | <b>121,1</b>                   | <b>0,0</b>             | <b>1,4</b>                        | <b>1,4</b>                |

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua